


Euskal AEko Merkataritza-sektoreko salmentak % 0,4 jaitsi dira 2022ko hirugarren hiruhilekoan

Urteko bigarren hiruhilekoaren aldean, sektore honetako salmentak % 1,4 gutxitu dira

Merkataritzaren sektorean (hau da, *Handizkako merkataritza*, *Txikizkako merkataritza* eta *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa*) % 0,4 jaitsi dira salmentak urte artean, prezio konstanteetan eta behin kenduta egutegi-eraginak, 2022ko hirugarren hiruhilekoan, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta urtaro-ondorioak kenduta, salmentak % 1,4 jaitsi dira 2022ko hirugarren hiruhilekoan.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzaren barruan, salmenten urte arteko bilakaera askotarikoa izan da sektore horretako adarretan. Halatan, *Txikizkako merkataritzaren* barruan, salmentak % 0,9 igo dira, eta *Handizkako merkataritzaren* salmentak berean mantendu dira (% 0,0). Aitzitik, *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketaren* adarreko salmentak % 8,7 jaitsi dira 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, *Handizkako merkataritzan* eta *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketan* salmentak % 0,9 eta % 0,1 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Txikizkako merkataritzaren adarrean, ordea, salmentak egonkor mantendu dira (% 0,0) hiruhileko artean.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2022/III

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A (t) / A (t-4)
INDIZE OROKORRA	-0,4	-1,4	3,2
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-8,7	-0,1	-8,7
Handizkako merkataritza	0,0	-0,9	4,8
Txikizkako merkataritza	0,9	0,0	3,7
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	-1,5	-2,0	1,7
Bizkaia	0,6	-1,6	4,7
Gipuzkoa	-1,2	-0,8	1,6
EMPLEGUA	0,9	0,5	1,6

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2022ko Azaroaren 15a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura-indizea

Lurraldeen arabera, *Merkataritzaren* sektorean oro har, Bizkaian % 0,6 igo dira, urte arteko terminoetan, prezio konstanteetako salmentak urteko hirugarren hiruhilekoan; Araban eta Gipuzkoan, berriz, % 1,5 eta % 1,2 jaitsi dira, hurrenez hurren.

2022ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak jaitsi egin dira hiru lurraldeetan. Hala, Araban hiruhileko arteko jaitsiera % 2,0koa izan da, Bizkaian % 1,6koa eta, azkenik, Gipuzkoan % 0,8koa.

Euskal AEko *Merkataritzaren* sektoreko landunen indizea % 0,9 igo da 2022ko hirugarren hiruhilekoan, 2021eko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Urteko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, enplegua % 0,5 hazi da.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie zirkunstantziak gorabehera egindako ahaleginagatik lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea % **96,0ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62